



**INTXAURRONDO HEGOA IP**

**HIZKUNTZA  
PROIEKTUA**

*2014-2015 ikasturtea*

## AURKIBIDEA

<b>1. Ikastetxearen egoera</b> 1.1. Esparru soziolinguistikoa 1.2. Hizkuntzen garapena ebaluazio diagnostikoan	3
<b>2. Hizkuntza helburuak</b> 2.1 Euskara eta literatura, gaztelania eta literatura 2.2 Atzerritar hizkuntza	6
<b>3. Gure Ikastetxearen hizkuntza printzipioak</b> 3.1 Lorpen maila LH bukaeran curriculumari begira 3.2 Ebaluazio sistema eta tresnak	8
<b>4. Ardatz pedagogiko eta metodologiko orokorrak</b>	9
<b>5. Eskolako hizkuntzen erabilerako irizpideak</b>	12
<b>6. Hizkuntzen erabilera ikastetxean</b> 6.1. Paisaia linguistikoa 6.2. Euskalkien ezagutza 6.3. Ekintza orokorrak 6.4. Irakurketa eta idaketari dagokionez 6.5. Irakasleriaren antolaketa: irakaslea eta ikas-taldea	13
<b>7. Hizkuntzaren lanketa curriculum edukietan</b> 7.1. Ahozotasuna 7.2. Gelako jarduerak 7.3. Koordinazio lana	15
<b>8. Hizkuntza arloen artean</b> 8.1. Hizkuntza ezberdinen trataera 8.2. Ordutegiaren zehaztapenak	17
<b>9. Baliabideak</b> 9.1. Giza baliabideak 9.2. Material aukeraketa eta erabilera	19

## **SARRERA**

Gaur egungo gizartean informazioa gero eta ugariagoa da eta guztion eskura dagoela kontuan harturik egungo herritarren erronka nagusia informazioa kritikoki aztertu eta ezagutzea izango da, horretarako irizpide propioak garatu behar ditugu informazioa nahiz ezagutza berriak balioesteko. Informaziotik ezagutzara doan bidea, bizitza osoan garatu beharko dugu.

Ezinbestekoak izango dira elkarriketarako nahiz talde lanerako gaitasunak eta guzti honek maila goreneko hizkuntza konpetentziak, ahozkoak zein idatziak, garatzea eskatzen du. Baina ez da nahikoa hizkuntza bakar batekin jokatzeko, herritar eleanitzak lortu behar ditugu.

Hizkuntza da:

Nortasunaren garapenerako tresna nagusia.

Pentsamendua egiturateko eta errealitatea barneratzeko tresna nagusia.

Gizartean parte hartzeko eta elkarrekin bizitzeko tresna nagusia.

Derrigorrezko eskolaldiaren amaieran hizkuntzarako gaitasun egokia<sup>1</sup> lortu ahal izateko, ahozko eta idatzizko hizkuntza (euskaraz eta gaztelaniaz) menderatu behar da testuinguru anitzetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten erabilera funtzionala izan. Ikuspegi eleanitza da, gure ustez, helburu hori lortzeko biderik egokiena.

## **1. IKASTETXEAREN EGOERA.**

### **1.1. ESPARRU SOZIOLINGUISTIKOA**

Atal honetan gure ikastetxearen egoera aztertu nahi dugu ikuspegi orokor batez. Berton gai aipagarrienak azpimarratuko ditugu eta aurrerago helburuak eta irizpideei buruz akordioak lortzeko ahaztezinak diren hizkuntzei buruzko ezaugarriak seinalatuko ditugu.

Ikastetxearen hizkuntza ezaugarri orokorrak:

Ikasleei dagokiona:

- Gure eskola D eredu eskola da. Honek eskola-hizkuntza euskara dela esan nahi du, gure ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelania izan arren.
- Nahiz eta ikasle batzuen ama edo aita euskaldunak izan, beraien arteko harremanetan gaztelaniarako joera erabatekoa da.
- Honek euskarak eskolan duen erabilera mailan eragin handia du: haurren gehiengo nabarmen batek euskara "hizkuntza akademiko" bezala erabiltzen du soilik. Harremanetan eta aisialdian, berriz, gaztelaniara jotzen dute.

Langileriari dagokiona:


- Irakasle guztiok euskararen PL2a dugu eta une honetan lau ingelesa tituludunak dira. Gaztelania guztiok menderatzen dugu.
- Langile ez irakasleak: sukaldariak, jangelako zaindarien, atezainak, eskolaz kanpoko ekintzetako begirale/entrenatzaileak, eta haurtzaindegiko arduradunak euskara erabiltzen dute. Euskara ez dakiten langile bakarrak bost dira.

<sup>1</sup>EHAA, 2007/11/13, Sarrera, 106.0rr.

## HIZKUNTZA PROIEKTUA

Gure ikastetxeko familien egoera:

- Gure ikasleen datuak hauek dira:
  - % 11ren bi gurasoek euskara dakite. Normalean etxean ere euskara erabiltzen dute.
  - % 13,3ak ama edo aita euskalduna du. Kasu hauetan etxeko hizkuntza gaztelania ohi da.
  - % 75,7ak guraso erdaldunak ditu (gaztelaniaz mintzo direnak, galegoz, arabieraz, errusieraz, ukraineraz, ingelesez, ...). Urtetik urtera hauen presentzia aldatzen joaten da. Hauen artean badira zenbait guraso euskararen jakite maila txikia dutenak, eta seme-alabekin euskara erabiltzen dute esaldi arruntak esateko egoera konkretu batzuetan.
- Nahiz eta ikasle batzuen ama edo aita euskaldunak izan, kaleko harremanetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania izaten da, euskara hizkuntza akademikoa izaten delarik.
- Ikastetxeko familien maila kulturala eta sozio-ekonomikoa azken urte hauetan aldatu egin da. 2011-12 ikasturtean ebaluazio diagnostikoaren txostenaren arabera ISEKaren indizea -0,2 da, hau da, ertain-baxua. Hona hemen ISEKaren garapenaren grafikoa:



Egoera hau kontuan harturik ekintza osagarriak eta ikasgelaz kanpoko ekintzak antolatzerakoan honako irizpideetan oinarritzen gara:

- Hizkuntza desberdinak erabiltzeko sortzen diren deialdietan eta egoera komunikatiboetan (txotxongilo eta antzerki emanaldietan, erakusketak, proiektzioak, eta abar) parte hartzea, betiere euskarari lehentasuna emanez.
- Ikastetxeak auzoan eta hirian ematen den euskarazko kultur eskaintzan informazioa (liburutegia, museoa, erakusketak, hitzaldiak, aisialdirako deialdiak...) gurasoei luzatzea.
- Ikastetxeak bai eskolan bai eskolatik kanpo jarduera zehatzak antolatzen ditu euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko asmoz.

Gure ikasleen artean beste herrialdeetatik etorritako haur batzuk baditugu; gehienak Lehen Hezkuntzan matrikulaturik daude. Ikasturtero, irailean batez ere, mugimendu handia dago. Hauek, askotan, hizkuntza eta alfabeto ezberdinak ekartzen dituzte eta saiatzen gara gure jardueretan kontuan hartzen. Bestalde, une honetan, familia batzuk beste erkidegoetatik itzultzen ari dira.

## HIZKUNTZA PROIEKTUA


Gure ikastetxeak zenbait esperientzi eta deialdietan parte hartzen du hizkuntzen ikasketa eta erabilera errazteko asmoz, eta haien artean:

- NOLEGA programa: Bertsolaritza, kantagintza, antzerkigintza
- Euskal Girotze Barnetegietako deialdia.
- Ingeles Barnetegietako deialdia.
- Prestakuntza-Berrikuntza Proiektuaren barruan, ahozkotasanaren lanketa aztertu eta hobetzeko ikastaroa (Irale bitartez, "E-bete" erakundearekin). Bukatuta jada.
- Berritze hitzarmena (Berriprest).


### 1.2. HIZKUNTZEN GARAPENA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN

Hau da ebaluazio diagnostikoak eman digun hizkuntzen gaitasunen argazkia:


#### HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA EUSKARAZ



#### HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA GAZTELERAZ



### HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA INGELESEZ



Datu hauen ondorioz, ikasturte hauetan zehar inplementatutako *hobekuntza planek* euskarari saiatu dira eragin handiena izaten.

**Ikastetxeko hizkuntzen egoera kontuan izanda, ildo honetatik jarraitzeko beharra ikusten dugu, euskararen erabilera indartzeko, ingelesaren ezagupena errazteko, etorkinen hizkuntzen presentzia ziurtatzeko.**

## 2. HELBURUAK:

### 2.a EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA

Ikasleek gaitasun hauek eskuratzea da Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaiek Lehen Hezkuntzan izango duten helburua:

1. Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.
2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.
3. Era egokian elkarrizketan aritzea era askotako egoeratan, errespetuz eta lankidetzan asmoz, hartara norberaren sentimenduz eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza talde-lanean eraikitzeko.
4. Gizarte-hedabideak, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea eta lankidetzan aritzea, informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea, eta jakintza eraikitzea eta bizitza sozialean parte hartzea.
5. Hizkuntzen erabilera-sistemei eta -arauei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utzita hizkuntzaren estereotipoak, hau da, edozelako balio-judizioak eta aurreiritziak.

6. Ikasgelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasunari aitorpena eta balioa ematea, hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera ona edukitzeko, euskara erabiltzeko eta hizkuntza gutxitua normaltzearen aldeko jarrera izateko. Horrekin batera, hizkuntza guztiak komunikazio tresna egokitzat eta kultura-ondareztat hartu behar ditu ikasleak.

7. Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeo sorburua den aldetik.

8. Literaturaz gozatzea, genero askotako literatura testuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturetakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamina eman behar diote ikasleari, eta baliatu egin behar ditu sentikortasun estetikoa handitzeko, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeo.

9. Literatura-hizkuntzaren oinarrizko konbentzioak ezagutzen hasia, testuak ulertzeko eta literatura-xedeko testuak egiteko.

10. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.

### **2.b ATZERRIKO HEZKUNTZA**

Honako gaitasun hauek lortzea du helburu Atzerriko Hizkuntza irakasteak Lehen Hezkuntzan:

1. Eskola-inguruneke komunikazio-egoera arruntei dagozkien ahozko diskurtsoa eta diskurtso idatzia, ikasleen bizipen eta interesekin lotutakoak, ulertzea, diskurtso horiek interpretatzea, eta irakurketaren edo entzunaldiaren emaitza helburu pertsonalak, sozialak eta akademikoak betetzeko erabiltzea.

2. Ahozko adierazpen eta adierazpen idatzi egoki, koherente eta zuzenak egitea ikastetxeke komunikazio egoeretan. Adierazpenak gelan aurrez landutako gaiei buruzkoak izango dira, eta komunikazio-premia arruntei erantzuteke ereduaz baliatzeko aukera izango dute ikasleek.

3. Era egokian elkarrizketan aritzea eduki eta garapen ezaguneko egoera arruntetan, hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren prozedurak erabiliz, errespetuz eta lankidetzan giroan; era horretan, norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, jendartean eraginkortasunez komunikatzeko, eta jakintza taldean eraikitzeo.

4. Gero eta autonomia handiagoz erabiltzea gizarte hedabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, beste iturri batzuekin batera, eta, horren bidez, atzerriko hizkuntzan informazioa lortu, komunikatu eta laguntza ematea.

5. Atzerriko hizkuntzak ulermenerako eta hizkuntza sorkuntzarako erabiltzen dituen prozedurako sistemari eta haren arauetarako buruzko gogoeta egitea, eta hizkuntza horren fonetika, erritmoa, azentuak, intonazioa, hizkuntza-egiturak eta alderdi lexikoak ezagutzea, hura egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko.

6. Beste hizkuntza batzuei buruzko jakintza eta aurretiazko bizipenak erabiltzea, azkar, eraginkortasunez eta autonomiaz ikasteko atzerriko hizkuntza.

7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea beste errealitate eta kultura batzuk deskubritzeko, eta ulermenezko, errespetuzko eta laguntzazko jarrera baikorrak erakustea haiekiko.

8. Literatura-testu sinpleak irakurtzea eta entzutea, horien bidez plazera sentitzeko, sentikortasun estetikoak handitzeko, hizkuntza aberasteko eta norberaren nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.

9. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta, horretan oinarrituta, komunikazio-gaitasuna hobetzea.

### **3. GURE IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PRINTZIBIOAK**

1. Hizkuntzen ikaskuntza **planteamendu instrumentaletik** egin, hau da, tresna bezala erabiltzera bultzatu eskolan egiten diren gauzak burutzeko. Horretarako erabaki dugu:
  - Hizkuntza desberdinen arteko gaitasun komunikatiboen transferentziak errazteko curriculumeko hizkuntza guztiak metodologi berarekin tratatuko ditugu.
  - Hiru hizkuntzak (euskara, ingelesa eta gaztelania) arloetako edukiak lantzeko baliabideak izango dira.
  - Hizkuntzazko prozedurak ez dira bakarrik hizkuntza arloetan landuko baizik eta arlo guztietan antolatuko dira prozedurak lantzeko jarduerak.
2. Familian garatzen diren hizkuntzekiko jarrerak ikasketa arrakastatsua lortzeko oinarritzekoak direla jakinik, familien ezagutza eta parte hartzea bultzatzeko jarduerak sustatu.
3. Aurreiritziak gainditzeko eta eskolan diren hizkuntza guztiak erabiltzearen aldeko jarrera baikorrak bultzatzeko honako jarduerak antolatu:
  - Hizkuntzek eskolatik kanpo jasaten dituzten desberdintasunak gainditzeko eredu orekatzaileak eta erabilerarako arauak eskaini.
  - Gela barruan nahiz gelatik kanpoko komunikazioan eskolako hizkuntza desberdinez baliatzeko ekintzak antolatu, betiere, euskararen aldeko jarduerak antolatzeko joera izanik hizkuntza hau suspertzeko.
  - Hizkuntza ezberdinek dituzten identitate ezaugarriak ezagutzeko bitartekoak eskaini.



4. Ingelesaren ikaskuntzan Haur Hezkuntzako 2.zikloko 2.mailan hasi, hezkuntza eleanitzaren ikuspegitik abiatuta.
5. Eskolako hizkuntza, hots, euskara, ezagutzen ez duten ume eta familiekiko laguntzazko jarrerak bultzatu, komunikazioa erraztu eta beste kultura eta hizkuntzekiko errespetua azaldu.
  - Jaiak, ipuin kontalariak, erakusketak... antolatzea, bertan ahoz edo idatziz beste hizkuntza batzuk erabiltzen direlarik.
  - Etorkinen familiei zuzendutako harrera antolatu, euren hizkuntzetako testuak erabiliz.
  - Hezkuntza Saileko zerbitzuekin koordinatzea (itzultzailea behar denean lortu ahal izateko). Hizkuntzarekin ez du zerikusirik.
6. Inguruarekiko harremanak sendotu, hizkuntza kulturaren tresna bezala ezagutuz eta bere erabilera erreala baliabide bihurtuz.
  - Inguruko ekitaldi kulturalak ezagutu.
  - Tradiziozko zenbait ospakizunetan parte hartu, hauek garatzen dituzten balioak aztertuz.
  - Monitorea, elkarteak... ekintza desberdinetan euskaraz parte hartu, ahal den neurrian.

## 4. ARDATZ PEDAGOGIKO ETA METODOLOGIKO OROKORRAK

Ikastetxearen hizkuntza nagusia euskara da. Horrek zera esan nahi du:

- **Komunikazio hizkuntza nagusia euskara da.<sup>2</sup>**
- **Gure ikasleak benetako eleanitzak izatera iristea nahi dugu, curriculumean jasotzen den moduan (EHAA, 2007/11/13, 218. alearen Gehigarria, 107.0rr.).**

Hizkuntzek lehentasunezko lekua dute Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumean. Euskal eskola-sistemak hizkuntza ofizial bietan antzeko komunikazio gaitasuna eta atzerriko beste batean gaitasun ona lortzeko helburuaren alde apustu egin baitu.

Aipatutakoa lortzeko kontuan izan behar dugu eskolara iristen diren ikasleen egoerak desberdinak direla, bai hizkuntza jatorriengatik baita egin duten hizkuntza trataeraren hautapenarengatik ere.

Horretarako honako printzipio hauetan oinarritzen gara:

- Hizkuntza gutxiagotuaren bidez egindako irakaskuntzak ez du eragozten haurren garapen akademikoa nagusi den hizkuntzan, hau da, gizartean, eskolatik kanpo, hain zuzen, presentzia eta estatusa dituen hizkuntzan.

---

<sup>2</sup>EHAA, 2010/04/20: "Euskarak lehentasuna izan beharko du hezkuntza-eremuan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da dekretu honetan jasotako helburuetarako."

## HIZKUNTZA PROIEKTUA

- Hizkuntza gutxiagotuaz mintzo diren ikasleen irakaskuntza hizkuntza horren bidez egin behar da beren eskola errendimendua berretu nahi bada. Horretarako, giza errekurtsoak eta baliabideak ezinbestekoak dira.
- Bigarren hizkuntza, euskara (H<sub>2</sub>) ikasterakoan, hizkuntza horren ikasleen eta erabiltzaileen arteko interakzioa ezinbestekoa da intzidentzia handieneko aldagaia.

Garbi utzi nahi dugu **eskolako hizkuntza nagusia euskara** dela eta ikaskuntza **ikuspegi komunikatibotik** landuko dela, eskolako testuinguruan nagusi den gaztelania hizkuntzaren indarra orekatu nahian. Era berean atzerriko hizkuntzak garrantzia berezia du, curriculumean eta komunikazio mailan.

Gure ikastetxeko ezaugarriak eta aipatutako helburuak kontuan hartuz, gure hizkuntza ereduak ezaugarri hauek jarraituko ditu:

- Gela berean ama hizkuntza euskara duten ikasleak eta ama hizkuntza gaztelania duten ikasleak ditugu. Irakasleok kontuan izango dugu ikasleek euskararen jakite maila ezberdina dutela eta hizkuntzaren garapena guztiengan ziurtatuko dugu.
- H1 gaztelania duten ikasleekiko ezin dugu ahaztu irakaskuntza bigarren hizkuntzaz dela. Beraz, behar denean, diskurtsoa testuinguru batean kokatuko da, mezua beti aztertu behar baita, eta ez "a priori" ulertutzat hartu. Irakasleok elebidunak gara (gutxienez), ondorioz, komunikazioa ez da etengo, nahiz eta hurrek beraien lehenengo hizkuntza erabili zerbait komunikatzeko. Irakasleok edozein egoeretan euskara erabiliko dugu. Hasieran, hurrek duten ulermen mailaren arabera, zerbait ulertzea nahi dugunean, bakarka esango zaie, lehendabizi euskaraz, gero gaztelaniaz eta ondoren euskaraz berriro.

- Euskara ikasleei, egoera eta jarduera interesgarrien bidez aurkeztuko zaie, haurrak ikasten ari diren hizkuntzaz mintzatzeko gogoia pizteko.
- Ingelesa HH 4 urteko gelan hasiko gara lantzen eta gaztelania LHko 3.mailan.
- Hizkuntzak Irakasteko eta ikasteko ikuspegi eraikitzaile eta komunikatibotik abiatuko gara.
- Hizkuntzaren ikaskuntza giza-interakzioa eta testuinguru esanguratsuetan egingo da.
- **Hizkuntzaren ikaskuntza errazteko :**

1. Ikasgela antolatuko dugu (espazioa, denbora eta ikasle-taldeak) benetako interakzioa posible izan dadin.

Horretarako, honako hauek lehenetsiko ditugu:

- Ikasleengan zentratutako irakaskuntza
- Talde handiko ekintzak murriztuko ditugu eta talde txikietan, bikotetan eta bakarka lan egingo dugu.
- Taldekatze malguak bultzatuko ditugu jardueraren arabera.
- Ikasleen arteko interakzioa eta adin desberdina duten ikasleen arteko "tutorizazioa" bultzatzeko jarduerak planifikatuko ditugu.

2. Irakasleek "input"<sup>1</sup> esanguratsua eskainiko dute. Hori lortzeko proposamenak:

- Irakaslearen berbeta haurrak uler dezakeenera egokitua izango da, haurren gaitasun mailara edo pixka bat goragora egokitua.
- Mezuan zentratzea, esaten duguna haurrentzat interesgarria izan dadin eta bere arreta erakar dezan, eta beti saiatuko gara irakaslearentzat ere erakargarriak izaten.
- Argi hitz egitea, hasieran esaldi laburrekin, ahoskera eta adierazkortasuna zainduz.
- Hitza euskarri estralinguistikoekin (irudiekin, keinuekin...) laguntzea, mezuaren ulermena errazteko.
- Parafrasia erabiltzea, hots, igortzen ditugun mezuak beste hitz batzuekin formulatzea, ulermen osoa ziurtatu arte.
- Liburuetan, bideoetan, multimedietan eta abarretan erabiltzen diren testuen kalitatea zaintzea eta ulergarrienak aukeratzea.
- Diskurtso eta testu mota guztiak erabiltzea.
- Input-aren kantitatea, kalitatea eta praktikan nola jarri zainduko dugu.

3. Ikasteko ekintzak eta proposamenak burutuko ditugu ikasleekin batera:

- Ikasleengan komunikazio beharra sortzen duten jarduerak bilatuko ditugu.
- Ikasleek ahozko eta idatzizko testuak ekoiztuko dituzte.
- Testu anitzak eta esanguratsuak landuko dira, beti funtzionaltasun batekin.
- Jarduera irekiak proposatuko dira ikasleek beren hipotesiak frogatu ditzaten.
- Ikasleei hizkuntza erabiltzeko aukera emango zaie.
- Arlo guztietan hizkuntzaren erabilera zaindu eta bultzatu egingo da.

4. Edozein ikaste-prozesuan hutsegiteak agertzen dira, prozesuaren zati bat direnak. Oker hauek adierazten dute ikaste-prozesua aurrera doala baina adi egon behar dugu betiko mantendu ez daitezen.

Hori gerta ez dadin akatsen inguruan era desberdinetan lan egitea proposatzen dugu:

- Elkarrizketan aritu, interakzioaren oinarritzko arauak kontuan hartuz (egia esan, informazio kantitate egokia eman, harira joan, argia izan), testuingururik gabeko errepikapenak alboratuz
- Zuzenketarako era desberdinak erabiltzea: forma zuzena eskatzea, formari buruzko galderak egitea, mezuari buruzko argipenak eskatzea, gaizki esandakoa errepikatzea eta zuzenketa esplizitua egitea.
- Beti mezu ulergarriak eman eta garrantzirik handiena esanahiari edo formari ematea egoera, adina, testuinguru eta arloaren arabera, beti helburu komunikatiboari begira.

5. Ikasgelan garatuko ditugun ekintzek ikasleentzat zentzua izango dute eta irakasle edo haurren interesetik aterako dira.

6. Eskolan ikasten ari den hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea ezinbestekoa da ondo ikasteko. Horregatik, ikasle eta irakasleok haurren produkzio guztiak onartuko ditugu testuinguru bakoitzari dagokion hizkuntzan.

---

<sup>1</sup> *Inputa ikasleek ikasten ari diren hizkuntzaz entzun edota irakurtzen duten mezuen multzoa da*

7. Eskolako esparru guztietan euskararen erabilera bultzatuko dugu.
8. Norberak bere buruarekin duen konfiantza eta segurtasunak zerikusia du hizkuntza ikastearekin. Horregatik gelan eta eskolako edozein ekintza bideratzerakoan kontuan izango dugu gure jarrerak duen garrantzia giroa lasaia eta atsegina izateko.
9. Autokonzepto positiboa edukitzeak ikaste-prozesuari laguntzen dio. Hori dela eta, gure ikasleei eskaintzen dizkiegun lan proposamenak euren lorpen mailan egongo dira. Ikasle guztiak gai izan behar dira proposamen horiek aurrera atera ahal izateko beraien lanaren bidez, beste lankideekin edota helduren baten laguntzaz.
10. Egonkortasun emozionalak eta afektibitateak hizkuntzaren ikaste-prozesuari laguntzen dio. Hori kontuan izanda, haurra bere osotasunean onartuko dugu eta adi egongo gara gertatzen zaionarekin interbentzio egokia egin ahal izateko
11. Gure ikasleriaren aniztasuna kontuan izanda eta aurrekoan esandakoarekin batera honelakoak planteatuko ditugu gure eguneroko lanean:
  - Umeek gelako lanak eta proposamenak era desberdinetan hartuko eta egingo dituzte, eurek dituzten testuinguruaren ezagutza, lanerako erraztasunak eta nahiak, ikasteko erak, interesak, jarrerak eta abarren arabera eta irakasleok onartuko ditugu.
  - Gelako planifikazioan umeen partehartzea sustatuko dugu, benetako arazoen ebazpenerako testuingurua ematen baitu; iritzi, informazio eta ideien trukaketa era naturalean egitea ahalbidetzen duelako fikziozko egoeren antzezpena baino gehiago.
  - Ekintza osagarrietan parte hartzeak garrantzi handia dauka hizkuntzaren ikaste-prozesuan, horregatik holako ekintza eta jarduerak planifikatu ditugu.
  - Ahozkotasuna bultzatuko dugu: ipuin kontaketak, antzerkiak, asanbladak, eztabaidak, maila ezberdinen arteko tutorizazioa..., komunikazio testuingurua eskainiz.
  - Geletako liburutegian mota guztietako testuak (aldizkariak, egunkariak, atlasak, entziklopediak, hiztegiak, ipuinak, katalogoak...) sartuko ditugu hizkuntza ezberdinetan.
  - Eskolako liburutegia informazioa bilatzeko, irakurtzeko eta lanak burutzeko erabiliko dugu.
  - Teknologia berriak erabiliko ditugu lan honetan jarduteko.
  - Hizkuntza batean lantzen ditugun edukiak beste hizkuntzetan ere erabiliko dira.

## **5. ESKOLAKO HIZKUNTZEN ERABILERA KO IRIZPIDEAK**

Harremanetarako hizkuntza nagusia euskara izango da, ahoz zein idatziz.

Familiekin: Haurrak matrikulatzeko garaian ikasle fitxan aukeratuko dute ikastetxearekin aritzeko hizkuntza, eta hori erabiliko dugu elkarrizketetan eta idatzietan.

Gelako bilera orokorretan bi hizkuntzak erabiliko dira. Baita eskolako webgunean ere.

Ikasleekin: Gaztelaniako saioetan irakaslea gaztelaniaz arituko da , baina hortik kanpo euskaraz ikasle guztiakin. Gaztelaniako saioetara beste irakasle edo ikasleren bat sartzen bada, euskaraz zuzenduko zaio.

Ingeleseko irakasleak ingelesez hitz egingo dute.

Gainerako irakasleok euskaraz arituko gara ikasle guztiakin.

Irakasleen artean: den-dena euskaraz egingo dugu.

Erakundeekin: euskaraz edo bi hizkuntzetan. Txosten idatziren bat gaztelaniaz soilik bidaltzen badigute, euskaraz ere bidaltzeko eskatuko zaie.

Dokumentuak: Eskola barneko txosten guztiak euskaraz sortzen ditugu. OOGak onartu behar dituen dokumentuak elebrietan idatziko ditugu (Urteko Plana, Memoria, Elkarbizitza Plana, Hezkuntza Proiektua). Klaustro eta bileretako aktak euskaraz eta Organo Gorenekoak eta Batzordetakoak euskaraz eta gaztelaniaz.

## **6. HIZKUNTZEN ERABILERA IKASTETXEAN**

### **6.1. PAISAIA LINGUISTIKOA**

Geletako izendapenak, ormetan ezartzen diren kartelak, iragarkiak eta abar, euskaraz azalduko dira, eskolara sartzen den edozein pertsonari hizkuntza hau erabiltzeko gonbidapena egiteko; baina, ez da euskaraz soilik izan behar, beste hizkuntzetan ere ager daitezke, jardueraren arabera edo helburuaren arabera.

Gure ikastetxeko ormek, pasabideek, gelek... egunero erabiltzen ditugun espazioek betetzen duten funtzio hezitzaileaz ohartzen garenez arreta berezia jarriko dugu euron zainketan.

Bertan, edukiari erreparatzen diogun bezala azaltzen duten hizkuntzari ere arreta ipiniko diogu; informazioa emateaz gain ikastetxeko hizkuntza ereduaren isla ere badira:

- Errotulazioa: ikastetxean zehar bertako eta kanpoko pertsonen joan-etorriak gidatzen dituzten txartelak eta ikastetxearen izena euskaraz agertuko dira.
- Pasabideetan eta ormetan ezartzen diren ikasleen lanak, ikasgelan egiten dituzten lanen adierazle direnak, burutzen diren hizkuntzan agertuko dira, hau da, hiru hizkuntzek izango dute presentzia.
- Iragarki-taulak: barneko informazioak nahiz kanpoko ekitaldien berri ematen dutenak, euskaraz eta gaztelaniaz.

### **6.2. EUSKALKIEN ERABILERA**

Euskararen normalizazio prozesuan esparru berrietara zabaltzea garrantzitsua izanagatik ere, ez da gutxiagorako lehendik bizirik iraun duen horietan duintasunez mantentzea. Zentzu honetan garrantzi handia du eskolak egiten duen planteamendua tokian tokiko euskalkiari buruz. Arrazoi desberdinak direla medio (euskararen batasun prozesua, irakasleen prestakuntzan hutsuneak, testu eta bestelako liburuen eredu... ) askotan herriko

hizkerak ez du tokirik izan herriko eskolan eta honek eragin negatiboa dauka ikasleengan eta baita haurren gurasoengan, eskolako eredu aintzakotzat hartzeak euren gaitzestera bultzatzen dituelako, euren beti erabiltzen duten hizkuntza ez-gai bezala ikusten baitute eskolako eredu estandarizatuaren aurrean; sarri askotan gurasoak euskara alboratu eta gaztelaniaz zuzentzen zaizkie irakasleei.

Ikastetxean euskalkien erabilerarako irizpideak honako hauek izango dira:

- Orokorrean euskara batuaz egingo dugu, berez euskalkirik ez da erabiliko, baina ateak irekita daude beti edozein euskalki sartzeko:
  - eskolaratze hasieran uneetarako
  - ahozko komunikaziorako
  - herriko erakundeekiko harremanetarako
  - familiekiko batzar eta komunikazioetarako
  - euskalki batean idatzitako testuen erabilerarako
- Haur eta Lehen Hezkuntzan zehar aukera izango dute ikasleek bai testuen bidez, baita euskalki desberdinetako hiztunekiko harremanen bidez hizkuntza aniztasunaz ohartzeko eta aldera desberdinekiko jarrera baikorrak garatzeko.

### **6.3. EKINTZA OROKORRAK**

Ospakizunak eskola komunitatea osoari zuzentzen zaizkio eta bertan egiten diren aurkezpen eta ekitaldietan euskararen erabilera bultzatuko dugu. Horretarako, urtero ospatuko ditugun jai hauetaz baliatuko gara:

- Euskararen eguna
- Santo Tomas / Olentzero
- San Sebastian eguna
- Kaldereroak
- Inauteriak
- Santa Ageda
- Korrika
- Liburuaren eguna (beste hizkuntzetan ere, noski).
- Gai kulturaren AZKEN XEDEA
- Ikasturte bukaerako festa

### **6.4. IRAKURKETA ETA IDAZKETARI DAGOKIENEZ**

Irakurketa eta idazketako lehen urratsak zein hizkuntzan emango ditugun erabakitzeko aspektu hauetan oinarrituko gara:

- Hasieratik, hau da, bi urteko gelan hasita, euskaraz landuko ditugu irakurketa eta idazketa ikasle guztiekin.
- Ingelesean irakurtzen eta idazten 4 urteko gelan hasiko dira, hau da, hizkuntza hau sartu ahala.
- Gaztelaniaz 3. mailan.

Gainerako hizkuntzak beharren arabera erabiliko ditugu jarduera zehatz batzuen bitartez.

Erabiliko den hizkuntza, familiaren desberdina baldin bada, honek sor dezakeen inpaktoa kontuan izango dugu. Gurasoek alfabetizazio prozesuan laguntzeko orientabideak luzatuko ditugu, euren hizkuntzak ere; era berean lotura bilatuz eta segurtasuna emanez.

### **6.5. IRAKASLERIAREN ANTOLAKETA: IRAKASLEA ETA IKAS-TALDEA**

- Irakasleria elebiduna izango da (euskara/gaztelania).
- Irakasleriaren ingelera ezaguera ere kontuan izango dugu, atzerriko hizkuntzaren prozesua indartzeko.

## **7. HIZKUNTZAREN LANKETA CURRICULUMENKO EDUKIETAN**

Haur eta Lehen Hezkuntzako lehentasunezko helburua da ikasleen gaitasun komunikatiboaren garapena, horregatik gaitasun honek biltzen dituen azpi-gaitasun guztien lanketa ezinbestekoa zaigu. Hau da, landuko ditugu bai hizkuntza gaitasunari buruzko aspektuak, bai diskurtso gaitasuna, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun estrategikoa.

Aspektu hauek guztiak kontuan eduki behar ditugu bai hizkuntzazko eskoletan, baita edozein ezagutza arlotan; hizkuntzei buruzko ezagutza eta jarrera positiboen garapena ez baita lortzen soilik hizkuntza arloetako parte hartze didaktikoaren bidez, eskolako jarduera guztietan hizkuntzaren dimentsioa kontuan izanda baino. Izan ere, kontzeptuzko ezagutzak hizkuntz arloetan lantzen badira ere prozedurazko ezagutzak arlo guztietan landu beharrekoak dira, arlo guztietan erabiltzen baitugu hizkuntza ezagutza bidetzat eta ikasteko tresnatzat eta zientziaren eremu bakoitzak badu bere diskurtso modu propioa ezagutu behar dena arloan kompetentea izan ahal izateko.

Eskola sasoiaren hasierako unetan, Haur Hezkuntzako lehen zikloan, hitzezko hartu eman gehienak "hemen eta orain" gertatzen denari buruzkoak dira, hau da, testuinguruari zeharo lotuta daude. Jorratzen diren gaietako edukietan sakondu ahala darabilgun hizkuntza gero eta gehiago aldentzen da inguru hurbiletik, testuingurutik, gero eta erabilera formalagoa egiten dugu.

Gure eguneroko lanean testu mota guztiak lantzen ditugu. Gelako Proiektuak Ingurunearen Ezaguerako gai bati ingurukoak izaten dira eta horrekin lotuta testu mota bat lantzen dugu, nahiz eta beste testu mota batzuk erabili ere.

**HHn:** ipuina da gehien erabiltzen dugun testu mota, bai euskaraz bai ingelesez. Baina ez da bakarra, beste testu mota batzuk lantzen dira, hala nola, elkarrizketak, errezetak, azalpen testua, eskutitza...

**LHn:** etapa osoan zehar testu mota guztiak landuko dira, ahoz zein idatziz, helburu desberdinekin (azalpen testua informazioa bilatzeko, ipuina gozatzeko...). Testu motaren aukeraketa Inguruneke gaiaren arabera egiten da, egokia den bat bilatzen baita, baina beti malgutasunez jokatzen dugu eta haurren interesen arabera, edo egoera komunikatiboaren

arabera, aladatu daiteke. 2. ziklotik aurrera gai bat sartzen denean, normalean azalpen testutik abiatzen gara.

Benetako egoera komunikatiboak planteiatzen dira eta edukiak lantzeko aurkezten diren aktibitateetan hizkuntza kontuan izaten dute, noizbehinka hizkuntzazko aktibitate bereziak antolatzen badira ere. Inguruneko gaiaren inguruan hiru hizkuntzetako jarduerak gauzatuko dira, eta, horrez gain, hizkuntza bakoitzean gramatika, ortografia eta hiztegia ere landu egingo dira.

Testuak lantzeko garaian estrategia ugari erabiltzen ditugu, funtzioa eta helburuaren arabera:

- Irakurketa sakona, irakurketa azkarra, azpimarraketa, galdeketa..., betiere, irakurketaren helburuaren arabera.
- Aurretik dituzten ezagupenak informazio berriarekin lotzen dituztela eta ezarritako helburuetarako egokia dela, ziurtatu behar dugu.
- Eskaintzen zaizkien testu guztietan hiztegia lantzen da eta ideia nagusiak ateratzen laguntzen zaie.

Ildo honetatik lan egiten ahal izateko geletako liburutegiak ondo hornituta izango ditugu. Bertan mota guztietako eta hizkuntza desberdinetako testuak agertuko dira, eta liburu mailegua Haur Hezkuntzan sartuko da.

### **7.1. AHOZKOTASUNA**

Uneoro lantzen da, egoera guztiak aprobeztatzen dira ahozkotasuna lantzeko, baina egoera errealak: ikasleren batek esandakoaren haritik berbaldia antolatzen da, kontzeptu berri baten inguruan jarduera bat planteatzen da, azalpenak ematerakoan informazio berria lehendik ikasitako gai ezagupenekin lotzen da, egindako lanaren hausnarketa bideratzen da...

Noizbehinka egitura berriak sartzen dira eta sakonki lantzen dira, akatsak zuzentzeko ariketa proposak proposatzen dira, hizkuntza batek berezkoak dituen ahozkerak eta doinuak barneratzeko ariketak burutzen dira (abestiak, errepikapenak..., ingeles saioetan asko erabiltzen dira, hasieran gehien bat, HHn).

### **7.2. GELAKO JARDUERAK**

Ezagutza arloetan erabiltzen diren informazio eta azalpeneko testuen ulermen eta ekoizpenean gero eta trebeago izan ahal izateko behar-beharrezkoa da alderdi biak lantzea, ulermena eta ekoizpena. Hori dela eta, etengabe lantzen dira biak maila guztietan.

Gelako praktikan hizkuntzaren lau trebetasunak aintzat dituzten jarduerak diseinatuko ditugu: entzumena, mintzamena, irakurketa eta idazketa.



Ikasleen arteko interakzioa eta komunikazioa emateko, ikasleek mezu emaile nahiz hartzaile izateko aukera izan dezaten, taldekatze mota desberdinak erabiliko dira eta komunikazio egoerak bultzatu egingo dira.

**Hizkuntza ikaskuntza bideratzeko / gauzatzeko tresna moduan erabiliko da.**

**Egindako ikaskuntzetaz baliatuko gara testuinguru desberdinetan.**

**Eredu gisa edota ikasteko aurkezten diren testuen egokitasuna ziurtatuko da.**

Testu mota guztiak ahoz zein idatziz landuko dira eta horretarako eskolak dituen baliabide guztiak erabiliko dira, betiere Teknologia Berrien erabilera bultzatuz.

Inguruneko gaiaren inguruan azaltzen diren testuak hiru hizkuntzetan landuko dira, baina , aparte badira zenbait atal hizkuntza bakar batean jorratuko direnak (literatura, adibidez).

Gelako proiektu bakoitzaren bukaeran azken xedea agertuko da, bertara ailegatzeko bide egokia jorratzen lagunduko diegu ikasleei: edukiari eta formari erreparatzen, etengabeko berrikusketa egiten, lanaren planifikazioa bideratzen (zer esan nahi dugun, zeintzu dira informazioarik garrantzitsuenak, nola ordenatuko ditugun...)

### **7.3. KOORDINAZIO LANA**

Gure lana aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa dugu irakasleen arteko koordinazioa. Etapa eta zikloko irakasleek hizkuntzazko zereginak bateratuko dituzte, euren ikaskuntza prozesuan modu eraginkorrez aurrera egin ahal izateko. Zeregin horiek zein eduki edota arloekin dauden erlazionatuta zehaztuko dute ere. Ikastalde bereko irakasleen artean ardurak banatuko dituzte eginkizun hauetan. Ebaluazioa ere denen artean burutuko dute. Horretarako astero ziklo edota mailako bilerak (tutoreak eta espezialistak).

## **8. HIZKUNTZA ARLOEN ARTEAN**

Gure irakaskuntza elebidun edo eleanitz honetan hizkuntzaren irakaskuntza bera tresna bezala erabiltzen da. Eskola baldin bada irakatsi eta ikasi egiten den gunea, ikaslearen ama hizkuntza ez den hizkuntza batean ikasi eta irakasteak aukera ematen du ez bakarrik heziketa ekintzen helburua lortzeko, baita aldi berean erabiltzen den hizkuntza hori ikasteko ere. Hau horrela izanda, hizkuntza irakasketa-ikasketa ekintzak burutzeko tresna bihurtzen da.

Horrexegatik, eskolan lantzen diren hizkuntzak metodo-ikuspegi berdinez erabiliko dira, beraien artean transferentziak egiteko aukera emanez. Irakasle guztien artean (ez hizkuntzetako irakasleen artean soilik) adostasun bat izango dute hizkuntza irakaskuntzan, aho hizkuntzan nahiz idatzian.

Abiapuntutzat hartuko dugu hizkuntza bera dela tresna eta hizkuntzak gauzak egiteko erabiliz ikasten ditugula (Ignasi Vila). Hori dela eta, irakasleek zehaztuko dute zer egin irakatsi-ikasteko hizkuntza batean, zein curriculum-eduki landu hizkuntzan, zer jarduera burutu hizkuntza bakoitzean... Era honetan bi xede lortuko ditugu bide batez: ikasleek

curriculum-edukiak bereganatzen dituzten heinean, hizkuntzaren gaitasuna ere hobetu egiten da.

Irakasketa-ikasketa jarduerak ikasleek hiru hizkuntzak erabiliz burutuko dituzte. Gainera, gelan egunero egiten diren lanek beraien interesak betetzea saiatuko gara. Era honetan ikasleek hizkuntza guztiekiko jarrera baikorra izango dutela uste dugu.

Gure metodologia irizpide nagusiak honako hauek dira:

- Ikuspegi eraikitzaile eta komunikatiboa
- Interakzioa eta testu inguru esanguratsuak
- Hizkuntzak ekintzak burutzeko tresnak
- Hiru hizkuntzetan metodologia berberaren erabilera eta eduki mota guztien lanketa
- Edukien transferrigarritasuna
- Esparru guztietan euskararen erabilera bultzatu
- Konpetentzietan oinarritzen den Curriculuma garatzeko arlo guztiak biltzen dituen Proiektuen bidez lan egin

### **8.1. HIZKUNTZA EZBERDINEN TRATAERA**

<b>EUSKARA</b>	<input type="checkbox"/> Harrera hizkuntza izango da
<b>Oinarritzko hizkuntza bideratzailea (gida-hizkuntza)</b>	<input type="checkbox"/> Ohiko harremanetarako hizkuntza izango da <input type="checkbox"/> Lanerako hizkuntza izango da <input type="checkbox"/> Testu anitzak erabiliko dira <input type="checkbox"/> Baliabide asko erabiliko dira testuinguru formal zein informaletan
<b>GAZTELANIA Bigarren hizkuntza bideratzailea</b>	<input type="checkbox"/> Hizkuntza honetako jardueren programazioa tutorearekin batera egingo da ( <i>arlo hau beste irakasle batek ematen badu</i> ). <input type="checkbox"/> Gaztelaniaren erabilera ez formala oinarria izango da eskolak hizkuntza honen irakaskuntzari ekiteko, eta lana beste erabilera formaletara zuzenduko da, bai ahoz bai idatziz. <input type="checkbox"/> LHko 3. mailatik aurrera diseinatuko dira curriculum edukiakin zerikusia duten jarduerak, betiere oinarritzko hizkuntza bideratzailean egindako ikasketak oinarritzat hartuz.
<b>INGELERA Atzerritar hizkuntza</b>	<input type="checkbox"/> Hasieran entzumena landuko da gehien bat, ulermena garatzeko. <input type="checkbox"/> Haur Hezkuntzan entzumena eta hizkuntzaren ahozko erabilera bultzatuko da irakasle-ikasle interakzioan. <i>Ingelesaren sarrera goiztiarra</i> programako edukiak landuko dira. <input type="checkbox"/> Etapa honetako arloen eduki curriculumekin zerikusia duten jarduerak burutuko ditugu. <input type="checkbox"/> Lehen Hezkuntzan ingelera saioetan ez dira bakarrik hizkuntza edukiak landuko, arlo guztietakoak baizik. Bertan gure <i>Eleaniztasunaren proiektuan</i> aipatzen diren edukiak landuko dira.

### BESTE HIZKUNTZAK

- Izenak arabieraz, gelako elementuak errusieraz... idatziko dira.
- Hizkuntzen arteko hiztegiak sortuko dira (euskara, gaztelania, *caló*, ingelesa, adibidez).

### 8.2. ORDUTEGIAREN ZEHAZTAPENAK: Hizkuntzen ordu banaketa mailaz maila LHn:

Arlo linguistikoaren ordu banaketa LHn.						
	Lehen Hezkuntzako mailak					
	1	2	3	4	5	6
Euskara	6		4		3,5	3
Gaztelania	0		3		3	3
Ingelesa	3		4		4	4

LHko 2. eta 3. zikloetan ingelesako astean ordu bat gehitu dugu (langile kopuruak utzi duen neurrian).

## 9. BALIABIDEAK

### 9.1. GIZA-BALIABIDEAK antolatzerakoan irizpide batzuek kontuan izango ditugure ikastetxean eta haien artean:

#### Irakasleak

- Euskararen erabilera egoera formala (gela barruan, bileretan, oharrak idazterakoan...) eta informaletan (patioan, irtereetan, eguneroko agurra egoeretan...) aztertzen da urtero.
- Euskararen erabilera bultzatu egiten da esparru guztietan.
- Ingelarekiko eta hizkuntza guztiekiko jarrera baikorra.
- Gaztelaniaren erabilera gela barrura murriztu nahi dugu, gaztelaniako saioretara; gela barruko lanetara murrizten saiatuko gara beti.

#### Eskola Komunitatea

- Ikasleen gurasoen eta beste senide batzuen partaidetza bultzatuko dugu, euskalki eta hizkuntza desberdinekin harremana errazteko.
- Ekintza puntualak antolatuko ditugu etorkinen hizkuntzen presentzia izateko.
- Hizkuntzekiko jarrera positiboak bultzatuko ditugu eskolako bizitzan hizkuntza desberdinen hiztunen partaidetza antolaturik, gurasoak bereziki.

#### Beste langile batzuk

- Eskolan lan egiten dutenen euskara ezagupena eta erabilera kontuan izango dugu eta bultzatuko dugu. Bereziki hurrekin zuzenean harremanak dituztenak eta haien artean: atezainak, laguntzaileak, jantokiko langileak, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen dutenak, kanpoko adituak, etabar.

- Eskolara kanpotik datozen adituen partaidetza antolatuko dugu. Aditu hauek (herri desberdinetako ipuin kontalariak, bertsolariak eta abar) euskara eta ingelesa ezagutzeko eta ikasteko oso eredu baliogarriak dira.

### **9.2. MATERIALAREN AUKERAKETA ETA ERABILERA**

Irakasle guztiok hizkuntza irakasleak gara, horregatik irakurketa, matematika, ingelesa eta edozein arlo lantzeko, curriculum-materialak aukeratzeko ezarri ditugun irizpideak honako hauek dira:

- Hiztegia lantzen ditugun gaiekin lotura izatea.
- Planteatzen ditugun jarduera-motak desberdinak izatea ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena lantzeko.
- Proposamen didaktiko globalizatzaileak lantzea.
- Konplexutasun-maila desberdina duten jarduerak eskeintzea hizkuntza guztietan.
- Bai testuak, bai erabiltzen dituen irudiak eta beste euskarri grafikoak, gure hizkuntza planteamenduarekin koherenteak izatea
- Erakargarriak izatea eta ikasleei ikerketa egiteko gogoia piztea
- Euskara, gaztelania, ingelesa eta beste hizkuntza batzuen presentzia finkatuko dugu eta denon artean erabakiko dugu baliabide didaktikoen erabilera. Horretarako akordioak batuko ditugu espazio eta material amankomunak eta gelakoak goian jarritako irizpideekin ados antolatzeko.
- Hizkuntzak ez dira geletan bakarrik ikasten eta horregatik ikastetxean oinarritzko baliabide batzuen erabilera antolatu behar dugu. Haien artean: Liburutegia (zeintzu eta zenbat liburu izango dugun euskeraz, gaztelanieraz, ingelesez eta abar), Egunkariak, Irrati programak eta abar (hauek ere kanpoko hizkuntza ereduak dira), Teknologiak (ikusentzunezko eta informatikako euskarri desberdinen bidez testuak lantzen ditugu)... hau da, baliabide ugari eta benetakoak.